

Goierriarra

269. zenbakia 2004ko urriak 22



Odolki
errezeten
liburua



Xepeño Agirre

BOLARI

Txapelduna

✱ Estetika

✱ Betiko estentsioez gain:

- ✓ Jusketa
- ✓ Keratina
- ✓ Trentzak
- ✓ Metodo berria: klip hair stension



K I M E T Z

I L E A P A I N D E G I A

943 88 14 42 MENDEURREN ETORBIDEA, 2 20200 BEASAIN





ITURGINTZA - KALEFAZIOA - GASA
BAINU ETA SUKALDEKO INSTALAKUNTZAK
ETXEBIZITZEKO AIRE EGOKITUAK
BERRIKUNTZA LANAK
GREMIO GUZTIEN ARDURA



SUKALDEKO ETA
BAINUKO ALTZARIAK



BULEGOAK-LANTEGIA
USABAL, 11-A
TOLOSA
Tel.: 943 672 620

POLIURETANOZKO LEIHOAK



ERAKUSKETAK:
SAN FRANTZISKO, 10
TOLOSA
Tel.: 943 653 307



FREELANDER BERRIA NATURAZ GAINDIKO SEGURTASUNA

- 4x4 trakzio iraunkorra
- ABS + Balaztatze Presioaren Banaketa Elektronikoa (EBD)
- Trakzioaren Kontrol Elektronikoa (ETC)
- Aldapak Jaisteko Kontrola (HDC)
- Azken belaunaldiko motorrak



Gipuzkoarako kontzesionario bakarra
Donostia-Hernani errepidea (Galarreta ondoan)
Telefonoa: 943 33 10 06

Goierriako zerbitzua: ANZIZAR
Beasain-Zumarraga errep. • Telefonoa: 943 88 17 00



BERTSOTAN



Aitor Sarriegi

Kolorez apaindurik
eta jantzi berriz
aldaturik itxuraz,
aldaturik neurritz
zatoz, Goierritarra
gogo izugarritz.
Horrez gain ale hontan
bertso hauek jarritz
lehengo txoko hura
gugana ekarriz (bis)
bertsoa etxeetan
sartuko da berriz.

Lehen egoera hau
zen oso urruna
gertu dabilen arren
horren erruduna.
Jaiotza batek, baina
piztu du eguna
orain "Hitza" da zure
anaia kuttuna
goizero ilusioz
jasoko duguna (bis)
goierrin zabal dadin
prentsa euskalduna.

Doinua: Udaletxean badut

Goierritarra HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierritarrak Kultur Elkartea

Dorre-etxea, I

124 posta-kutxa **ORDIZIA**

Tfnoa: 943 88 96 12

Faxa: 943 88 27 19

Posta elektronikoa:

goierritarra@topagunea.com

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Publizitatea: Argider Mujika

Zenbaki honetako

kolaboratzaileak: Idurre

Eskisabel, Iban Mate, Etor

Mendia, Aitor Sarriegi eta Laida

Plazaola.

Inprimaketa: Gertu

(Zubillaga 9. Oñati)

Tirada: 7.000 ale

SSN: I132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua:

37/76

Goierritarrak ez du bere
gain hartzen derrigorrez,
aldizkarian adierazitako
esanen eta iritzien
erantzukizunik.

AURKIBIDEA

4. Iritzia: Idurre Eskisabel

5. Ingurugiroa: Etxeko gaztetxoenei

7. Errezeta: Dilista eta Beasaingo
odolki entsalada

Aholkua: Behobia-Donostiari
begira

8. Kate Motzean: Joxe Ramon Agirre
'Marron'

9. Erreportajea: Odolki errezeta-
liburua


12. Elkarritzeta: Xepeño Agirre
bolaria

16. Argazki erreportajea: Lihoaren
pena eta nekeak

21. Kronika zaharra: Segurako
elizako iltzeak

22. Mundutarrak Goierrin: Modou
Diop

26. Foto zaharra: Lazkao 1980an



Goierritarra Goierritz kanpo
jasotzeko tarifak:

Hego Euskal Herria eta Espainia: urtean 12 euro

Ipar Euskal Herria eta Europa: urtean 24 euro

Europaz kanpo: urtean 36 euro

Goierritarra diruz laguntzen duten erakundeak:

GOIERRIKO UDALAK

Altzaga, Arama, Ataun, Beasain, Ezkio-Itsaso, Gabiria, Gaintza, Idiazabal,
Itsasondo, Lazkao, Legorreta, Mutiloa, Olaberria, Ordizia, Ormaiztegi,
Segura, Zaldibia, Zegama eta Zeraín



Gipuzkoako Foru Aldundia



Idurre Eskisabel

Goierritarra

zan ala ez izan, hori omen da kakoa. Inor izateko nor izan behar, eta nortasuna etxeak, sortutako parajeak, zedarritzen omen du.

Plastilnazkoak bide gara ume eta nerabe garaian: hitzik arruntenek, keinu ohikoenek, gertakari xumeenek, paisaia grisenek, ildo sakona marrazten dute edonoren izaeran. Egunerokoaren geografiak osatzen du gure baitako nortasunaren puzzle txikia.

Geroago, gaztaroan, egiten ditugu saioak berez, gure baimenik gabe, marraztutako ildo horiek ezabatzeke; geure burua mihise zuri bat bailitzan hartu eta gure nahien zein borondatearen araberako irudiak margotzeko. Eta sinesten dugu betirako ken daitezkeela sorlekuak, aukeratu gabeko inguruneak, marraztutakoak.

Baina geroago, (noiz?heldutasunean jarri beharko nuke, baina hitz larriegia zait hain arin erabiltzeko) ohartzen gara zirriborro horiek ez direla arkatzez egingakoak, zizel zorrotzez baizik. Azken batean, gure askatasun ariketa kontzientearen azpitik etxeak, sorlekuak, utzitako arrastoak ernatzen direla, eta gure margolan neketsua ziprizzintzen dutela.

Akaso horregatik, azkenaldian de-

zentetan pentsatu dut goierritar (beasaindar) izateak nigan izan duen eraginari buruz. Zenbateraino ziprizzintu duen nire nortasunaren mihisea. Urte askotako ukazioaren ondoren, barne puzzlean zenbaterainoko osagaia diren hainbestetan arbuiaututako topikoak; hainbeste gorrotatutako ezaugarri sumatuak. Eta horrek guztiak beste galderara bat sortu dit: nolakoa da Goierri? Nolakoak gara goierritarrak?

Bilbo inguruko lagunei goierritarra nintzela esaten nienean, iruditzen zitzaidan rh-negatiboan oinarritutako euskalduntasunaren ohorezko karneta atxikitzen zidatela, goierritar izate hutsagatik, beste meriturik gabe. Donostia ingurukoekin, berriz, baneukan irudipena baserri zuri-zuri baten atariko zelai berdeberdean irudikatzen nindutela, poxpolin jantzita, eta trikitiaren erritmoan arinarin dantzan. Goierritar izate hutsagatik, beste meriturik gabe.

Andoain-Hernani ingurukoekin, berriz, euskal-pijo esan izan zidaten noizbait: bailararen oparotasun ekonomikoagatik kotxe handiak edukitzea eta tabernetako barretan dirua lasai (eta harro) erabiltzea omen Goierriko mutilen ezaugarria; panpina moñoño eta garestien antza izatea neskena. Goierritar izate hutsagatik, beste meriturik gabe.

Eta ezagutzen ditut goierritarrak ezaugarri horietako batzuk betetzen dituztenak; areago, topiko horietako batzuk maite dituztenak eta egia bihurtzen saiatzen direnak. Goierritar izate hutsagatik, beste meriturik gabe.

Baina, halaber, goierritar asko ezagutzen ditut euskalduntasuna eta Extremadurako sustraiak uztartzen dituztenak, baserri bat inoiz zapaldu ez dutenak, eta hilabete amaierara iristeko zailtasunak dituztenak.

Guztien arrastoak geratu dira nire puzzlean. Espero dut, gainera, barne plastilina dagoeneko gogortuegi ez edukitzea, hartara Afrikatik eta Hego Amerikatik datozkigun marrazki berriak itsats daitezen.

Bilbo inguruko lagunei goierritarra
nintzela esaten nienean, iruditzen
zitzaidan rh-negatiboan oinarritutako
euskalduntasunaren ohorezko karneta
atxikitzen zidatela, goierritar izate
hutsagatik, beste meriturik gabe.

San Inazio, 14 BEASAIN
☎ 943 889 390

Garagartza pl., 1 ORDIZIA
☎ 943 805 327

San Franzisko, 8 TOLOSA
☎ 943 650 239

Lirain

Lurrindegia eta opari gaiak

Ikastetnik

psikopedagogia zerbitzuak

Joan Iturralde, 5
943 160 120
Beasain

Ikasketa oztupoak
Diagnosia eta tratamendua

• Test-ak, Frogak • Tailerrak

Etxeko gaztetxoenei zuzendua (II)

Manten dezagun Lurra berde

Zu berde bazaude, ongi ez zaudenaren seinale da. Baina Lurra berde badago, osasun seinale izango da. Lur berdeak landareak hazten ari direla adierazten du. Emankorra dela esan nahi du, ur nahikoa dugula, eta animaliek zer jan eta non bizitzetik badutela, alegia. Eta hona hemen berri ona: edozeinek lagun dezake Lurra berde mantentzen, zuk lagun dazakezu! Hain da erraza! Hazi bat landatu ahal duzu, ureztatu eta hazten ikusi. Hazten ari diren landareak laguntzat har ditzakezu, eta bizitzaz disfrutatzen lagundu. Papera aurreztu dezakezu zuhaitz gutxiago moztu behar izateko. Gogoratu, beste gauza garrantzitsua bat: zuhaitzek negutegi eraginaren aurka borrokatzen laguntzen dute eta oxigenoa ematen digute. Landaretza handia behar dugu munduan. Beraz guztiok lanera! Has gaitzen landatzen!

Erabil dezagun energia modu eta neurri egokian

"Txikia nintzenean nire amak gure herriko zentral elektrikoa erakusten zidan maiz: adreiluzko eraikuntza handia, hiru tximini altuarekin eta kanpoaldean burdin-hari eta metalezko makina pila zeukana. Barruan, langileek ikatza botatzen zuten su handi bateara eta ikatza erretzen zenean, elektrizitate bihurtzen zen energia sortzen zuen. Energia zentralaren ondotik igarotzean, amak ke

beltza seinalatzen zidan eta esaten zuen: 'Hau zikinkeria! Itxi egin beharko lukete airea kutsatzen jarrai ez dezan!'. Baina garai hartan ez genekien zer egin elektrizitaterik gabe."

Orain askoz gauza gehiago dakigu. Energia nahikoa aurreztekotan ez genukeela hainbeste zentral beharko. Badakigu ere zentraletik ateratzen den kutsadura jendea kirastu eta gaixo jartzeaz gain, min izugarria egiten diola Lurrari. Euriak zeruan dagoen kutsadura garbitzen duenean, euri-azido bihurtzen da, kutsatua erortzen dela! Euri-azidoak, erre-kak, lakuak, ibaiak eta elektrizitatea behar ez duten naturan ditugun izaki asko kaltetzen ditu.

Kutsadura mota desberdinengatik planeta oso-ko klima aldatzen ari da. Egunen batean, bero edo hotz handiegia egingo du animaliok bizi ahal izateko. Hala ere bada energia aurrezten eta lur, ibai eta zeruetako zikinkeria garbitzen laguntzen ari den jendea. Zeuk ere gauza asko

Energia
aurrezten eta
lur, ibai eta
zeruetako
zikinkeria
garbitzen zeuk
ere gauza asko
egin zenezake

egin zenezake zentzu berean!

Zabal dezagun mezua

Gaztetxoek botereak herri osoa inbaditu du. Zer egin dezake gaztetxoek botereak? Askok! Baina, zer egin jakin behar da. Hemen adibide batzuk.

Lehendakariari honelako eskutitza idatzi: "Bolia (marfila) debekatu behar da! Handia izango naizenean elefanteak existitzea nahi dut!". Lagunei erakustean haiek ere Lehendakariari idatzi nahiko diote, ziur.

Plastikozko bandejatan datorren janaririk ez dute erosi nahiko.

Ozono geruza edota euri azidoari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, galdetu zure irakasleari. Gainontzeko gaztetxoek galdera gehiago egingo dituzte. Eta mezu hau zabaldu nahian zure lagunak egiten dutena kontatzen dizutenean, lagun iezaiezu gauza bera eginez. Garrantzitsuenak da batasunean indarra dagoela zuk gogoratzea. Milioika gazte dago, eta zuek guztiok ezer egiten baduzue, zuek guztiok indartsuak izango zarete. Zuek eragin dezakezue gauzen aldakuntzan. Eta bide batez, atsegin dituzuen beste gauza batzuk egitea bururatzen bazaizue, ziur Mundua zuena da. Salbatzea ere zuen esku dago. Berri hau dakiten gazte kopurua handitu behar dugu!

Ainara Arzelus

("Lurra salbatzeko zeuk egin ditzakezun 50 gauza erraz" liburuan oinarritua)

JAKIN BEHARREKOA

Azkeneko mendeetan basoetako egurra hiru era desberdinetan usiatu izan da:

Txara: zuhaitzak ondotik moztan dira eta ipurditik irteten diren altsuma berriak 15-20 urte ondoren berriro mozteko moduan daude. Su-egurra eta ikatza egiteko erabiltzen zen.

Zuhaitz motza: zuhaitza 3 metro inguru altueran moztu eta hortik ematen dituen adarrak ustiatzen dira 15-20 urteko txandatan, horrela abereak larrean ibili daitezke basoan zuhaitzei kalterik egin gabe.

Zuhaitz tantaia: kasu honetan zuhaitza bere horretan hazten uzten da, enbor luze, lodi eta zuzena ateratzea da helburua, gero aroztegia erabiltzeko.

GARAIA GARAIAKOA

Azken garai hauetan perretxiko ugari bildu dena gauza jakina da, batipat onddoen kasuan, orain gibelurdinen txanda datorrela ere nabarmen-tzen hasia da. Hauek zurtinetik labanaz moztu behar omen diren leloa zabaldua bada ere, ez dago garbi hauek biltzearen modu egokia zein den. Bien bitartean jendea biltzeaz arduratzen da, total... Okerrena, ahalik eta gehien biltzearen joera hori da, otar betea etxera ekartzearekin ezin ba konforme egon. Gustuz egiten den bilketak, xarma guztia galtzen du, nor bera asegaitez geratzen delarik. Noiz arte jarrera hori?



Iraunkortasunaren 12 irizpideak:

1. Baliabideen erabilera egokia egitea.
2. Inguruneak berritzeko duen berezko ahalmena ez gaintitzea.
3. Bioniztasuna baloratu eta babestea.
4. Lurzoruaren erabilera iraunkorra izatea.
5. Mugigaitasuna eta irisgarritasuna bermatzea.
6. Tokiko baliabideak erabiltzea eta ekonomia dibertsifikatzea.
7. **Soldata duina izango duen lana lortu ahal izatea.**
8. Oinarritzko zerbitzuak eskura izatea.
9. Gizarte mailako zuzentasunaren eta justiziarren hazkundea.
10. Bizi-kalitate egokia bermatzea.
11. Gizarte-inplikazioa eta informazioa lortzeko bidea bermatzea.
12. Elkartasuna esparru orokorreko arazoaren aurrean.

7. Soldata duina izango duen lana lortu ahal izatea

Giza eskubideen adierazpen unibertsaleko 23. artikuluan honako hau esaten da:

"Pertsona orok du lan egiteko eskubidea, lana aukeratzekoa, lan baldintza bidezkoak eta egokiak izatekoa, eta langabeziaren aurkako laguntza jasotzekoa".

Bidezko ordainketa honen bete beharrek:

- Bere familia eta bakoitzaren ongizate

eta osasuna zaintzeko bizi kalitate egoki bat bideratu, elikadura, jantziak eta osasun-laguntza sartuz.

- Beharrezko bada, beste babes sozialeko baliabidez osatua egon, non osasun aseguruia eta zerbitzu publiko eta enpleguari elkartua dauden onurak sartuz.
- Aparteko orduak egiteagatik bidezko ordainketa bat eman eta lan berdineagatik ordainketa berdina eduki.



Ba al dakizu...?

Bigarren mailako hezkuntza duten emakumeak, gizonezkoak baino %60 gutxiago irabazten dute eta unibertsitate-titulua dutenak %65 gutxiago.


Gizonezko eta emakumezkoen arteko ezberdintasuna nabaria da 1998. urteko langile baten hilabeteko soldatan.

	Pezetak	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Ratioa
TOTALA	220.118	255.544	195.613	76,5
Industria	239.001	276.771	202.459	73,2
Eraikuntza	186.497	206.817	193.945	93,8
Zerbitzuak	215.045	255.557	191.567	75,0

Unicef-en datuen arabera, 5 eta 14 urteko umeen artean % 25 lanean ari da.

B.J.A. (Jarduera, lana eta langabezia)-ren arabera Euskal Herrian lan prekarietatea % 31,2an kokatzen da eta Europar berriz, % 13 batean.

Edalontzi berrerabilgarriak festetan



Datorren urriaren 22 eta 23an Zaldibian izango den Sustraiez Blai jaialdian emango zaio hasiera Goierriko Agenda 21ek bultzatutako ekimen berri honi, eta aurrerago ere beste ekitaldi eta herrietako festetara zabaldu nahi da, esaterako Legorretako datorren gazte festetako afarrira.

Plastikozko betiko edalontziek sortzen duten zaborra gutxitzearen edalontzi berrerabilgarriak ja-

rriko dira hurbiltzen diren guztientzat.

Frogatuta dago edalontzi berrerabilgarriak erabiltzen diren ekitaldietan hondakinen kopurua %90ean murriztera iristen dela.

Hau lortzeaz gain, berrerabilpenaren eta birzi-

klapenaren kultura bultzatzen da, energia eta baliabideen kontsumo handiegia dakarren "erabili eta bota" kulturaren aurrean.

Edalontziak bost kolore ezberdinetan izango dira: urdina, berdea, laranja, horia eta gardena.

Aukeratu zurea eta erabili ezazu gau osoan. Ondoren emaitza nahi duzun erabilera!

SUKALDEAN



Iban Mate
Dolarea jatetxea
Beasain

Osagaiak:

4 lagunentzat

- ziazerbak.
- berroak.
- lolo uraza.
- radiccio uraza.
- osterzuriak.
- kukuluak.
- endibiak.
- tomatea.
- Cherry tomateak.
- 100 g dilista.
- odolki erdia.

Dilista eta Beasaingo odolki entsalada

Alde batetik odolkia egosi eta beste aldetik dilistak ur ugaritan, solte gera daitezzen.

Barazkiak entsalada molde biribil batean pres-tatu. Hori egiteko, ziazerba hostokatu eta zurtoina kendu. Lolo uraza, haritz-hosto uraza, radiccio uraza eta osterzuria hostokatu eta garbitu. Ondoren, hauek zati nahiko handi-tan txikitu eta txikitutako

barazkiak ontzi batean ber-roekin, ziazerbekin eta Maldon gatzarekin nahastu, ondoren Modena ozipi-narekin maneatzeko.

Dilistak eta odolkia olio birjinarekin salteatu. Honek askatutako olio entsaladari gehitu. Saltea-tua beste molde batean ja-rri. Endibia, kukulua eta tomatetxoak platera apain-tzeko erabiliko ditugu.

On egin!

Behobia-Donostiari begira

Barkatuko didazue atre-bentzia baina hemen nau-kazue berriro ere gomen-dio xumeren bat emateko asmotan.

Uda joan zaigu eta ba-datorkigu udazkenarekin batera Behobia-Donosita lasterketa bere urteroko zi-tara. Eta udazkeneko hego haizeak zuhaitzetako hos-toen gisara mugitzen ditu Behobiak korrikalariak be-re magalerantz. Eta urtero bezala harrapatu izango ditu asko eta asko jokoz kanpo: kiloak irabazita, iaz hainbeste kostatuta lortu-tako gorputzaldi hura bi-

dean galduta, entrenamen-du saioak atzeratuta... Ur-te sasoiak bezala errepika-tzen den azken uneko za-laparta!

Zer egin egoera honen aurrean? Lehenik eta behin norberaren gorputza exi-gentzi maila horri aurre egiteko prestatuta dagoela ziurtatu. Nola egin daiteke hori? Esfortzu froga baten bidez. Froga honetan az-tertzen da gorputzak esfor-tzu fisiko indartsu baten aurrean nola erantzuten duen, eta gure entrena-mendu saioak planifikatze-ko beharrezko informazio

guztia lortzen dugu (tau-padak, erritmoak,...)

Gure gorputzaren az-terketa fisikoa egin ondo-ren eta bere gaitasun eta mugak ezagutu eta finka-tuta, gaitasun horiek gara-tzeari ekingo zaio entrena-mendu plan baten bitartez. Eta gogoratu beti ere kiro-la osasuna zaintzeko tres-na bezala erabili behar de-la eta Behobiatik Donos-tiarako ibilbidea guztion-tzako kirol festa bat izan behar dela. Bere helburua bete eta lasterketaz goza-tzen duen oro izango da egun horretako irabazle.

AHOLKUA



Etor Mendia
Kemen KOZ

berriz

AMAYA ARZUAGA
MIRIAN OCARIZ
ISABEL MARANT
PAUL & JOE
HOSS
MISS SIXTY

FRENCH CONNECTION
DIESEL
FOR ALL MANKIND
ANTIK BATIK
EARL JEANS
SCOOTER

BEASAIN

DONOSTIA

"Eguneroko ogia, ogi bereziak
eta pastel ezin hobeak"



K. Nagusia 35 BEASAIN


☎ 943887758

Elosegi, 14 LAZKAO

☎ 943887279

Sta. Maria, 19 ORDIZIA

☎ 943160044



Joxe Ramon Agirre 'Marron' Mendizalea

“Nire bizioa hegan egitea da”

Igo duzun mendirik politena?

Den-denak dute bere edertasuna, mendi bakoitzak du bere berezitasuna, bere ingurua, bere jendea eta zer ikusi handia du ere mendi hori norekin konpartitu duzun. Horrek ere laguntzen du mendia gozatzen. Hala ere etorzen zait mendi bat oroimenean, Antartidako Vinson mendia da bere bakartasunagatik.

Eta gogorrena?

Gure indar guztia jarri genuen, ia-ia muga ere gainditu genuen. Askok sufritu genuen mendi guztian bakarrak izatearekin gozatu arren. Gailurra han gelditu zen lortu gabe. K2 mendia ez zen utzi.

Parapentetik nola ikusten da mundua?

Beno, esango nuke mundutik da ikusten zarela grabitatea galduta bezala. Haizearen eskuetan jartzen zara eta haizea duzu zure lagun. Dena berdin ikusten da, dena bat egin da, dena borobil. Lurra hartzean ez da horrelakorik.

Berriz jaioko bazina, zer izango zinateke?

Berdin-berdin. Ez nuke ezertxo ere aldatuko.

Inoiz ahaztuko ez duzun eguna:

Orain San Martin bezpera.

Gustura ezagutuko zenukeen norbait?

Gustukoa dut pertsonak ezagutzea, gustukoa dut jende umila, sinplea, sakona, abegikorra ezagutzea. Berdin zait anonimoa edo ezaguna izatea pertsona hori.

Pertsonengan gehien estimatzen duzun dohaina?

Orain esan ditudan horiek dira, gaur ez dago betarik horietaz hausnartzeko baina premiazkoak dira giza-emakumezkoen arteko harremanak xamurtzeko.

Nola definituko zenuke zure burua?

Ez da xamurra zure baitako argazkia egiten baina kezka bat nagusitzen da maiz neregan. Zenbat ume, zenbat giza-emakume hiltzen da egunero-egunero, segundoz segundo. Hori ez da gaurko berrietan agertzen, normala zaigu. Normaltasun horrek asko kezkatzen dit.

Zerk sortzen dizu barrea?

Barre egitea osasuntsua bada ere ez naiz barre zalea, hala ere lagun arteko barrealdiak ba ditugu.

Eta negarra?

Ez ditut gustoko agurrak.

Herriko alkate izango bazina....

Nahiko lanak izango nituzke nik ere denekikoa egitea alkateek nahi izaten duten moduan. Giroa hobetzen saiatuko nintzateke behintzat, herrian zerbitzu on batzuek izateaz gain, ondo sentitzeko bertan eta bertakoekin. Ez da lan makala.

Bizio bat: Hegan egitea.

Zaletasun bat: Soinua.

Gustuko jaki bat: Mizpera ustelak.

Edari bat: Ardo on bat.

Aralar: Etxean sentitzen naiz.

Ataun: Sukaldean.

Euskal Herria: Barren barrenean odola bezala.

Goierriko txoko bat: Ataungo Aie.

Oporretarako leku bat: Inguruko edozein.

Amets bat: Ea egunen batean gure etorkizuneko norabidean bat egiten badugun nahiz eta bide ezberdinak eram.

IÑAKI ARIN
Aseguruak



☎ 943 888 702

Oriako Pasealekua, 20

B E A S A I N

BAINUKO OSAGAIK
BEROGINTZA ITURGINTZA GASA

Tel.: 943 161 277 Faxa: 943 160 933
Nafarroa Etorbidea, 27
BEASAIN

Tailerra:
Okorro, 6
ORDIZIA

Beasaingo Udalak azaroaren 4an
aurkeztuko du

'Odolkiak ordainetan': odolkia osagai duen euskarazko errezeta-liburua

Beasaingo 23 sukaldarik emandako 44 errezeta biltzen dira 'Odolkiak ordainetan' liburuan. Odolkia osagai nagusia duten errezetak dira guztiak. Odolkiaren historia, odolkia egiteko prozesua, Beasaingo Odolkiaren Kofradiaren historia eta liburuaren amaieran, hiztegitxo bat ere biltzen dira liburuan. Hitzaurrea, Karlos Argiñano beasaingar sukaldari unibertsalak egin du. Guzti-guztia, euskara hutsean.

Azaroaren 4an, goizeko 10etan, Beasaingo Udaletxeko Batzar aretoan aurkeztuko da Udalak argitaratuko duen 'Odolkiak ordainetan' errezeta-liburua. Errezeta eman duten hainbat sukaldari bertan izango dira.

44 errezeta biltzen dira liburuan. Guztien oinarri

nagusia, odolkia da. Beasainen jatetxea duten sukaldariek eta kanpoan jatetxea duten Beasaingo sukaldariek emandako errezetak dira guztiak.


Euskara hutsean idatzita dago 'Odolkiak ordainetan'. Gauzak erraztearren eta lagungarri gisa, liburuaren amaieran, hiztegi-

txo bat ere azaltzen da, euskarazko definizioekin.

Ane Egurtza Udal Euskaltegiko langileak azpimarratu duenez, "sukaldariek oso jarrera ona izan dute, ideia polita iruditu zaie eta ez dugu inongo arazorik izan errezetak lortzeko".

Liburuaren oinarri na-

gusia errezetak badira ere, odolkiarekin lotutako beste hainbat atal ere biltzen dira bertan. Batetik, odolkiaren historia, odolkiak egiteko prozesua eta Beasaingo Odolki Kofradiaren historia biltzen dira. Liburuaren hitzaurrea, Karlos Argiñanok idatzi du. Antonio Ibaibarriaga Odolki



Arg.: Asier Larraza

Iñautsi
Hortz Klinika
ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO
602 ZM. KOLEGIATUA

RADIOGRAFI PANORAMIKO ETA ZEFALOMETRIAK
ODONTOLOGIA OROKORRA: HAUR ETA HELDUAK

JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN
☎ 943 88 46 28

VOLVO

ANZIZAR, S. A.

Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a BEASAIN
www.anzizar.com ☎ 943 88 17 00 Faxe.: 943 88 48

OSTEOPATIA
Jose Gisasola Dr.

- LUNBAGO, ZIATIKA, HERNIA DISKAL
- ZERBIKALGIA, ZEFALEA, MIGRAINA, ARTROSIS.
- TENDINITIS, KIROL LESIOAK.

Eskatu ordua: ☎ 629 45 20 53
Andra Mari, 13 behea ezk.
BEASAIN

R.P.S. 213/97

odolki errezeta



Arg.: Asier Larraza

**Jose Juan Castillo
Nicolasa jatetxea**

**Odolkia brik eran
babarrun-saltsarekin**

4 pertsonentzat.

**Babarrun-saltsa
prestatzeko osagaiak:**

- 200 g babarrun gorri.
- azenario erdia.
- porru erdia.
- tipula erdia.
- koilarakada bat olio.
- gatza eta ura.

**Babarrunak
nola prestatu:**

Babarrunak jarri beratzen egosi behar ditugun egunaren bezperan. Babarrunak egosteko unean babarrunak beratzen edukitako

ura kendu eta jarri berria. Ur honi koilarakada bat olio, porrua, azenarioa eta tipula gehitu. Gatz pitin bat bota eta egosi. Babarrunak eginda daudenean, birringailutik pasa eta ondoren txinatar iragazkitik edo iragazkitik eta mantendu saltsa hau Maria bainuan.

**Behar ditugun
gainerako osagaiak:**

- 40 g gurin, urtutakoa.
- 6 tipulin.
- 2 odolki.
- 4 Brik pasta orri.
- Olio eta ura.

Prestaera:

Tipulinak zuritu eta ebaki juliana eran. Jarri sueztitzen motel-motel 6 koilarakada oliorekin.

Odolkiak egosten jarri 15 minutuz, baina hori bai odolkiak egosten jarri aurretik sardexkaz pixka bat zulatu leher ez daitezen. 15 minutu igaro ondoren, odolkiak atera eta erditik luzetara ebaki. Hesteak kendu, odolkiaren haragia pixka bat txikitu eta hau gehitu aurretik sueztitzen eduki ditugun tipulinei. Pixka bat sueztitzen eduki ondoren, erretilu batera atera epeltzen joan daitezzen.

**4 brik orri zabaldua
jarri.**

Orri bakoitzaren erdian brotxa batez gurina zabaldu. Gurinaren gainean 4 brik orri, odolkiaren haragia eta tipula banatu. Orri bakoitzarekin poltsatxoak egin eta hari batekin lotu. 4 poltsak labe plaka batean jarri eta sartu labean 220°C-tan 5 minutuz. 5 minutu pasatutakoan hartu 4 plater eta denetan oinarrian jarri babarrun-pure beroa. Plater bakoitzean, purearen gainean kontu handiz bitsadera batez brik poltsa bat jarri. Apaintzeko erabili belar aromatikoak. Hau guztia egin ondoren, ia jateko prest dago.

► Kofradiko idazkariak adierazi digunez, Karlos Argiñano beti oso lotuta egon da Kofradiara: "Kofradiaren sorreran Argiñanok berak parte hartu zuen. Odolkiari oso lotuta egon izan da beti. Bere telebis-tetako programetan ere beti aipatzen du Beasaingo odolkia. Lehiaketetara ere askotan etortzen da. Liburuaren aurkezpenera ere etortzekoa da".

12 eurotan

Azaroaren 4ko aurkezpenean, 9 eurotan salduko da liburua. Hortik aurrera, 12 eurotan. Herriko liburutendetan salgai egongo da.

Zabaltzen liburu bantatzailerekin ere harremanetan jarri dira beasaindarrak, liburuari ahalik eta zabalkunderik handiena emateko. Durangoko Liburu eta Disko azokan adibidez, salgai izango da. Beste hainbat liburu azoketan ere bai.

**Euskara prestigiatze
aldera**

Beasaingo Udala Euskara Biziberritzeko Planean murgilduta dabil. "Hiru helburu estrategiko ditu Planak. Horietako bat, elikadurari dagokiona da; hau da, hizkuntzaren beraren corpusari begiratu behar zaiola, euskara prestigiatze aldera", azaldu digu Gurutze Sukia Beasaingo

IBAI ONDO



ARROZTEGIA

Altzariak neurritan

Mota guztietako aroztegi lanak

PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa

☎ 943 16 40 40 - 639 631 640 faxa: 943 16 47 47
Antzizar-Katea, 5 **BEASAIN**

Logela, egongela
eta sukaldeko
altzari nahiz
osagarrietan
aukera paregabea

URRAKI

OVER Taldea

BIDAIAK



Zure bidai agentzia

Kale Nagusia 42, beheka **BEASAIN**

Tel./Faxa: 943 80 40 15 urraki@over.es www.over.es

Tradizio handiko produktuak izan dira bai odolkia eta bai euskara. Liburuari ez diogu eman nahi izan itxura hori. Modernizatu egin nahi izan ditugu odolkia eta euskara.

Udal Euskaltegiko zuzendariak. Hortik bururatu zitzaizen Udal Euskaltegikoei odolkia oinarri duten errezetak euskaraz bildu eta zabaltzea. 'Odolkiak ordainetan' liburuan bildu dute guztia, Odolki Kofradiaren eta Bareak Merkatarien Elkartearen laguntzaz.

Aldi berean, ostalaritzaren munduan euskarak duen hutsunea betetzea ere badute asmoa Sukiak gaineratu duenez: "ostalaritzan aurretik menuak euskaratzen lana egin genuen. Baina ez dugu ikusten gehiegi egin dugunik. Oraindik ere lan dezente daukagu egiteko. Liburu honek balioko du sektore horretan euskara areagotzeko. Datozen belaunaldi euskaldunei beste ikuspegi bat emateko".

Lehenengo argitalpena euskarazkoa izan zedin nahi izan dute Beasaingo Udalekoek. "Gerora ez dugu baztertzen elebiduna izango denik, jende askok esaten baitugu arrakastatsua izango dela", zehaztu du Sukiak.

Diseinu modernoa

Beasaingo AH diseinu grafiko etxeak egin du liburuaren diseinua. "AHk begiak ireki dizkigu liburuarrekin. Oso tradizio handiko produktuak izan dira bai odolkia eta bai euskara, baserri girokoak. Liburuari ez diogu eman nahi



Aitor Garmendiaren argazkia, Martin Garcia Garmendiak berritutakoa.

Beasaingo Odolkiaren historia

Beasaingo odolkiak nola egin eta saltzen zirenari buruz ezagutzen dugun dokumenturik zaharrena Aitor Garmendia jaunaren argazki hau da. Segur aski 1924ko urrian egindako irudia izango da, urte bereko urriaren 26an plazako eraikin berriak inauguratu ondoren egindako lehen azoka egunekoak.

Aitorrek dioskunez Gudugarretako Agerrebarrena baserrian jaiozko Josefa Goitia andreak odolki onak egiten zituen ia XX.mendearen lehen laurdenean. Odolkiak egin, Josefak egiten bazituen ere, denentzako izaten zen lanen bat. Alejandro aitonak, esate baterako, indarrik handiena eskatzen zuten lanak egiten zituen. Liboriorrekin inguruko azoka guztietara behar zituzten trankuluak eta salgaiak eramaten zituen.

Goiko irudian Josefa etxeakoandrea,

Alejandro aitonarekin agertzen da salmentak egiten zituzten lekuan, eta berearekin daude Rafaela eta Liborio Goitia ere. Odolkiak egiteko osagaiei dagokienez, Aitorrek ez daki zehatz-mehatz zein formulaz baliatzen ziren, baina garbi oroitzen da bizigarri gisa Antzizar inguruko estratan bildu ohi zuten oreganoa erabiltzen zutela beti. Hainbat hamarkadatan odolki bikainak egin zituen Dionisio Aranburu harakinak. Josefa Goitiarengandik ikasi omen zuen hasieran odolkiak egiten, nahiz eta gero egiteko modua hobetu eta odolkiei bere ukitu berezia eman zien. 50eko hamarkadan, esaterako, Jose Castillo sukaldari ezagunaren jatetxeko menuan agertzen zen odolkia, soil-soilik edo babarrunekin, odolki horiek Dionisio Aranburuk eginak ziren.

ruaren diseinua. "AHk begiak ireki dizkigu liburuarrekin. Oso tradizio handiko produktuak izan dira bai odolkia eta bai euskara, baserri girokoak. Liburuari ez diogu eman nahi

izan itxura tradizional hori. Modernizatu egin nahi izan ditugu odolkia eta euskara. Argazkietan adibidez, ez da betiko mantelirik ikusten. Errezetak ere sukaldaritzaren berri oina-

rritutakoak dira gehienak. Beste mezu bat ere bidali nahi izan da: euskararekin ere modernitatea badatorrela, euskara ez dela baserri txokoko hizkuntza bat".

PSIKOLOGI KLINIKOA

ARGI

Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 42001

AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

Helduen,
umeen,
bikoteen eta
sexologi
tratamenduak

iñAUSTI N-1 errepidea
lurre auzoa
OLABERRIA

KARROZERIA

☎ 943 88 43 01

Xepeño Agirre segurar bolaria



*"Ez dakit gazteak nola erakarriko genituzkeen
bolatara"*

Trontza zorrozten harrapatu genuen Segurako bolaria. Xepiño Agirrek urteak daramatza bola munduan sartuta. Sari ugari irabazi izan ditu. Etxean 150 kopa baino gehiago ditu. Txapelak ere ugari.

Aurtengo denboraldian, Gipuzkoako txapelketa irabazi du, bakarka eta binaka, Imanol semea bikotekide zuela. Irailaren 25ean bestetik, errekor berria jarri zuen segurarrak: ordubeteko saioan, 231 botalditan, 1.336 birla bota zituen.

Bolatan irabazitako 150 trofeo baino gehiago ditu etxean Xepeiñok

64 urte ditu Xepeiño Agirrek eta bizitza guztian dabil bolatan. "Afizioa edo gaixotasuna zer den ez dakit oraintxe", dio segurarrak. "Gure gazte denboran beste asko ere ez zen. Baserriaren ondoan bolatokia geneukan. Seguran 12 bolatoki, batera, ezagutu nituen". Igandeetako entretenimendua izaten zuten bola jokoa. "Bizikleta hartu eta bolatara joaten ginen. Madalenan adibidez, 3 bolatoki ziren. Bi ireki eta bat estalia. Igan detan txerrikume bat jartzen zen saritzat", gogoratu du. Apusturik ez, baina trabesa asko izaten zen orduan. "Bi, hiru eta lau baietz! aritzen ziren".

Bolatoki asko eta bolari asko zegoen garaikoa da Xepeiño Agirre. Dena den, bolari asko, festetako bolatdietan bakarrik aritzen ziren. Agirrek, dena den, txapelketetara joateko go-goak bultzatuta, Zeraingo taldean hasi zen, Seguran talderik osatzerik izan ez zuenez. "Zerain eta Segura artean beti pike bat egon izan da eta zeraindar bezala hartzen nindutenez, handik gutxira sortu zen



Segurako taldea", dio segurarrak.

Harrezkero txapel eta kopa ugari irabazi izan ditu. 1978an, Espainiako txapelketa irabazi zuen lehenengo aldiz. "Federatu nintzenean, Espainiako Federazioa zegoen eta Espainiako txapelketa jokatzeko. Txapelketarik garrantzitsuenak izaten zen hura. Askotan irabazi nuen, 1978an lehenengoa. 1984an eta 1985ean ere bai. 1986an Euskal Federazioa sortu zen eta txapelketa hori egiteari utzi egin zitzaion".

Jokatzeke era ezberdinak

Goierrikoa, Gipuzkoakoa taldekoa eta bakarka, erregularitatea binaka eta binaka, Lehendakari saria,

eta Euskadiko txapelketa jokatzeko dituzte bola denboraldian. Gipuzkoako txapelketa irabazi du aurtengoan Xepeiño Agirrek, bakarka eta binaka, Imanol

Agirre semea lagun zuela. "Semeak oso ondo egiten du bolatan. Lehendakari saria 14 urterekin irabazi zuen. Denoi irabazi zingun". ▶

Birla guztiak bota al dituzu inoiz?

Ez. Zortzikoren bat edo beste bai, urtean bakarren bat erortzen da, baina gutxi. Bedertziak botatzen ez dut inoiz ikusi.

Adin onik ba al dago bolatarako?

Bolatan oso ondo egiten duten gazteak badaude. Lehengo bolatokitik indar gehiago behar izaten zen bola botatzeko, aldapatxo bat izaten baitzuen. Gaur egun denak berdindindak dira eta teknika da garrantzitsua. Indarra neurtzeak ikaragarri balio du.

Nolako entrenamenduak egiten dituzu?

Bolako garaian, astean 50-60 bola botatzen ditut. Bi egunetan entrenatzen dugu.

Amerikar bolalekuetara joateko tentaziorik izan al duzue?

Beti esaten dugu joan behar garela, baina oraindik ez gara joan.

Joixi

Iturgintza - Berogintza - Gasa

Carrefour
merkatalgunea
Tel. - faxa:
943 88 19 87
676 178 488
OLABERRIA

Z

Zunzunegi
Oinetakoak

Hirigoien, 8A LAZKAO
943 087 913

► Euskadiko bolarien federazioan federatuta egon behar da txapelketetan aritzeko. Dena den, federazio bakar baten pean arituagatik, jokatzeko moduak oso ezberdinak dira. Kilometro gutxian asko aldatzen da. "Arabatik eta Bizkaitik Gipuzkoara bolatan jokatzeko alde handia dago. Bolatokiak ezberdinak dira. Araban adibidez, bolatokia motzagoa eta zabalagoa izaten da. Bola handiagoa izaten da eta birlak, txiki-txikiak. Bizkaian, bolatokiaren bi aldeetan, lurrezko mendia izaten da. Arabakoek ere badute mendia, baina oholezkoa. Puntuazioa ere ezberdina da. Hemen, txaparroa joz gero, zero izaten da. Araban, botatzerakoan joz gero, 4 puntu ematen dituzte. Bizkaian, berriz, 5."

Bergara aldean, berriz, irutxuloan jokatzen dute, hiru birlekin. "Mendi txiki batean gaineen jartzen da bola, obalatua da. Guk bola esku zuloekin izaten ditugu eta besteetan ez, eskugainarekin botatzen dute".

Etorkizun iluna

Garaiak asko aldatu dira eta bola jokoan ere bai. Batetik, bolarien kopurua, asko jaitsi da, gehienak gainera 65 urtetik gorakoa dira. Gazteak bola jokora gerturatzea zaila da Xepeñoren esanetan. "Datozenak gehien-gehienak, gurasoetatik datoz. Ez daikit gazteak nola erakarriko genituzkeen bolatara. Ikasi denek egiten dute, bai neskek eta bai mutilek baina 18 urtera iristen direnean, bakoitzak bere bidea hartzen du. Gipuzkoa mailan, eskolan-edo, zerbait egin beharko litzatekeela uste dut. Nafarroan badute eskoletan herri kirolei buruzko gai bat. Gazteak erakartzeko horrelako bultzadaren bat beharko luke bolak".



Zutik Antonio eta Xepeño eta pikotxean Marzelino eta Imanol. Abizenez denak Agirre, Antonio eta Marzelino, Xepeñoren ilobak eta Imanol, semea. Guztien lana ezinbestekoa izan zen errekorra jartzeko.

Ordu bete: 231 bola eta 1.336 birla

Euskaldunon artean askotan gertatzen den bezala, bazkari baten bueltan sortu zen errekorra egiteko asmoa.

Irailaren 25ean egin zuen errekorra Xepeñok eta bere ustez bolariak bola gehiago bota ditzake baina bola jaso eta birlak jartzen aritu behar dutenек zaila dute. Lan horretan bakarren bat gehiago sartuz gero hobetu liteke marka baina araudiak ez du uzten. "Bi laguntzaile bakarrik jarrita, bolariaren

gaitasuna ez da neurtzen. Hiru lagun jarrita, bola gehiago bota litezke. Baina ez dugu araudia gainditu nahi izan. Bolariaren pultsoa garrantzitsua da baina laguntzaileen erritmoak balio du gehiena".

Zegaman bizi den Martin Retegik zuen errekorra duela lau urtetik eta "orain berriz egin nahi du ahalegina, Legazpiko bolatokian. Segurakoak baino metro bat gutxiago dauka eta 230 tiralditan 460 metroko aldea egon-

go da, hori dezente denbora da. Orain arte ez da bola tokien luzera homologatu baina egin egin beharko litzateke", dio segurarrak.

Ordulaurdeneko entrenamentuekin hasi ziren, gero orduerdikoak eta ordutebetakoak. "229-230-era bitan iritsi ginen, 234ra ere bai behin. Entrenamentuetan zazpiko gehiago botatzen nituen eta errekor egunean, sei-koak gehiago. Hori suertean egoten da".

Jokatzeko modua ere asko aldatu da: "lehen indar gehiago behar izaten zen. Gaur egun, bolatoki bakoitzaren arabera bota behar izaten da bola. Bolatoki batetik bestera alde handia dago. Indarra neurtu behar izaten da.

Bolatokien kokalekua ere aldatu da azken urtee-

tan. Gaur egun herrigunetik aparte samar egiten dituzte.

Segurako bolatoki berria, pilotalekuaren atzean dagoena, 1985ean egin zuten. Aurretik elizaren portikopean egon zen bolatokia. "Bolatokia herri barruan egonez gero, 'Ardo jokoak' egiteko aukera

egongo litzateke. Hau da, botila bat ardo galtzaileek ordaindu eta guztien artean edatea zen. Aurretik 'Gora eta behe' jokoa jokatzen zen. Hau da, bola bat botata birla gehien botatzen zuena hasten zen lehenengo bere taldeko ki-deak aukeratzen", argitu digu. ■

Bola, birla, bolatokia

8-9 kilo bitartean edukitzen ditu bolak. Pisua mantentzeko eta zartatu ez daitezen, bolak uretan edukitzen dira. "Botaldia egin baino bi egun lehenago atera behar dira uretatik. Bukatutakoan, berriz ere uretara. Txapelketak beti bola berriarekin jokatzen dira".

Artearen egurra erabiltzen da gaur egun bolak egiteko. "Sagarrezkoa eta haginezkoa baditut gordeta. Gilermo Intxaustiri omenaldia egin zitzaion 100 urterekin eta berak erabilitako haginezko bola gordeta daukat". Bolak Santiago Ugarteburu ezkiotarrak egiten ditu eta esku zuloak, Donostiako Antonio Goenagak.

Birlak

Orain arte egurrezkoak erabili dira, artezkoak. Gaur egun, plastikora jo dute. "Garestiagoa den arren, luza-roago irauten dute. Egurrezkoak oso politak dira baina pitzatu egiten dira, puskatu, egur egokia behar da..."

Bolatokia

Luzeran 22-25 metro izan behar ditu bolatoki batek. Zorruak hezetasuna eduki behar du eta "gaur eguneko bolatoki berriek, zoruan hezetasuna mantentzeko sistemak dituzte. Guk Seguran ez daukagu horrelakorik eta neroni aritzen naiz bustitzen sulfatadoreekin. Erregadioarekin ez da urik neurtzen", dio Xepeñok. Segurako bolatokiaren mantentzearen adura badu Xepeñok. "Oso mimatua daukagu bolatokia. Komuna duen bolatoki bakarra da Segurakoa. Xepeño bera saiatzen da txukun edukitzen. 40 urte daramatza horretan. Bolatokia itxi egin zuten duela bi urte, jendearen arduragabekeriagatik. Hori bai, bertara joan nahi duen edonori giltza emango zaio.



ondoeta

**GARAJE INDUSTRIA ETA FAMILIARTEKO
ETXEBIZITZETARAKO ATE METALIKOETAN
ESPEZIALDUA, ESKUZKOAK ETA AUTOMATIKOAK**

E-mail: ondoeta@ondoeta.com

www.ondoeta.com

© 943 88 31 02 - 943 88 74 51 Faxa: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA



**MUJKA
LIBURUDENDA**

Tel. / faxa: 943 88 11 94

Kale Nagusia, 19 ORDIZIA



kutxa

gizarte ekintza

'Lihoaren pena eta nekea' erakusketa Ordizian

Lihoa: landaretik oihalera

12 pausotan liho landaretik oihalerainoko prozesua dute erakusgai Pello Arruabarrena eta Karmele Aduriz zaldibiarrek. 40 bat urte badira lihoa egiteko tresnak biltzen hasi zirela. "Erakusketa honekin adorazio bat egin nahi izan diegu gure arbasoei, haiek zirelako gaude gu hemen".



1.- Lurra prestatu eta erein

Liho hazia irailean ereiten da. Lorea, urdin-txuria izaten du. Sanjoanak aldera bildu eta azaoetan, lehortzen jartzen da, azarora arte, etxean beste lan batzuk izaten zituzten eta. Liho landarea, askotan, basoan ereiten zuten. "Simaur asko ez zaio eman behar bestela asko loditzen da lihoa. Mendiko lihoak estimazio handiagoa zuen".



3.- Lihoa putzuan beratu

Erreka ondoan liho-putzuak egiten zituzten, beratzen jartzeko. Hiru bat astean izaten zuten beratzen. Erakusketan, zurezko baineratxo bat jarrita dago. Lihoa zenbat eta lodiagoa izan, denbora gehiago beharko zuen beratzeko. Liho mehegotik kirrua finagoa ateratzen da. Mehea alkandorak-eta egiteko erabiltzen zuten eta lodia, oihal zakarragoa egiteko. Lehortzen etxe inguruko zelaietan jartzen zuten.

Ordiziako Garagartza plazan, Mapfren ondoan dago ikusgai erakusketa. Ordiziako Larrun Arri elkarteak bere 25. urteurrena ospatzeko jarri duen erakusketa da. Urriaren 24ra arte bertatik bertara ikus daiteke lihoaren prozesua, 9:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 20:00etara.



2.- Garramarekin hazkorrak kendu

Aurreko lanak amaituta, azaroan, neskak eta mutilak elkarrekin aritzen ziren azaoak hartu eta garramarekin hazkorrak kentzen. Hazkorrak eguzkitan jarri eta hazia ateratzen zuten. "Ameketan neskameei bi lakari hazi ematen zieten, arreo prestatzen hasteko".



4.- Trangarekin trangatu

Lihoa jo eta kirrua ateratzen zen. Lihoa jotzeko era ezberdinak daude.



5.- Sugatsarekin eta ezpatarekin gozatu

Sugatsa eta ezpatarekin, gelditzen zen lastoa garbitzen zen. Haria egiteko dena garbi-garbi utzi behar izaten zen eta. Lekuaren arabera tresna ezberdinak erabiltzen zituzten.



6.- Txantxarrekin txantxarratu

Artilea kardatzen den bezala, lihoan txantxarrarekin txantxarratu egiten zen, lihoari goitik-behera eraginez.



7.- Gorua, txapela eta ardatzarekin haria egin

Behin txantxarratuta, haria egiten zen. Gorua, txapela eta ardatza erabiltzen ziren horretarako. "Mutilak gustuko neskari gorua edo txapela oparitzen zion, kortejo bezala".



8.- Matuzkarekin matazatu

Haria garbitu behar izaten zen eta aurretik matazak egiten zituzten matuzkarekin.

Jose Agustin Jauregi

Tel. eta Faxa: 943 886 558
Poltsikoko tel.: 616 698 288

Zubi-Erreka Industrialdea, 42
LAZKAO

toldosagustin.com
auxkin@toldosagustin.euskalnet.net

**FISIOTERAPIA
ERREABILITAZIOA**

Eskatu ordua: 609 601 310 - 943 087 234
Sanperio kalea, 5-behea ORDIZIA



9.- Tina, lixarri eta lixaskarekin matazak egosi

Tinaren gainean lihozko oihal bat jartzen zen. Bere gainean sutako hautsa talo burniaren gainean jarrita, beheko suan berotutako ura botatzen zen antusinarekin. Sutako hautsak lejia funtzioa egiten omen zuen. Oihalak, berriz, pasadore funtzioa. 6 orduan aritzen ziren lan honetan. "Aklaratzera errekarera eramaten zuten eta ondoren, zelaian uzten zuten lehortzen".



11.- Anezka ziriak kargatu

Ehundegira eramateko, anezka ziriak betetzen zituzten.



10.- Harilkariarekin harildu

Mataza harildu egin behar izaten zen hurrengo pausoan. Harilkari sistema ezberdinak erabili izan dira horretarako.



12.- Ehundegiarekin ehuna egin

Norberak ehundegira eramandako ehunarekin egindako oihala jasotzen zuten. Erakusketan ehundegi berria daukate jarrita, zaharra, eraman-ekarrirako handiegia baita.



ZEGAMA
OKINDEGIA
*Eskuz egindako
ogi naturala*

SALMENTA PUNTUAK:

Beasain: Zuhazpe, Oskarbi, Osiña, Natxo dietetika. **Ordizia:** Garmendia, Sabino, Muño, Osasun eta Gorosti. **Lazkao:** Lasa, Viaña eta Ainhua dietetika. **Legorreta:** Dorronsoro. **Zegama:** Kooperatiba eta Maria Jesusen denda. **Segura:** Erosle. **Idiazabal:** Ahizpak. **Ormaiztegui:** Iñaki Erosle. **Zumarraga:** Rueda dendak. **Legazpi:** Jabi harategia, Izkuntza eta Patxo..

☎ 943 80 10 66 Intxausti eremua, 14G-14H nabeak **ZEGAMA**

V. Ideia berritzaileen sariketa



Proiektuaren betebeharrak:

- Goierriko eskualdean garatu daitekeena beharko du izan
- Eskualdean gauzatu gabeko proiektua izatea
- Txosten bat aurkeztea, non azaldu beharko den: Helburua; Justifikazioa; proiektuaren garapen memoria eta aurrekontua (ahal dela).

Sariak:

1º saria: 1.000 euro. 2º saria: 500 euro.

Gainera, proiektua lantzeko 3.000 eurotako beka eta jarraipen laguntza eskainiko da. Inbertsiorako ere dirulaguntza izango da, proiektua eskualdean gauzatzekotan.

Epeak

- Aurkezpen epea 2004ko azaroaren 29an amaitzen da.

GOIMEN ELKARTEA

Santa Maria, 4 - 20.240 Ordizia - Tlf: 943 161244 - Fax: 943 161463 - e-mail: goimen@euskalnet.net

ATAUNGO HERRI ANTZOKIKO 2004/05 ZINE DENBORALDIA



HELDUAK:

OSTEGUNA: 21:30ean.
OSTIRALA: 22:00etan.
LARUNBATA: 22:00etan.
IGANDEA: 19:30ean.

HAURRAK:

IGANDEA: 16:30ean.

SARRERAK:

Helduak: 3,50 €
Haurrak: 2 €

FILMEEI BURUZKO INFORMAZIOA ASTERO-ASTERO
EGUNKARIETAKO ZINE KARTELDEGIETAN AURKI DEZAKEZU



ATAUNgo UDALA

Esperientziaren Eskola: 2004-2005 ikasturtea zabalik

Urriaren 15ean inauguratu zen ikasturte berria Goierriko Unibertsitatean. Felix Urkola Goiekiko eta Goierriko Herrien ekintzako lehendakaria, Joseba Etxezarreta Uggasako ordezkaria, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza ardura-duna, Ingemako ordezkaria Elixabet Arteaga, eta Txaro Fernandez izan ziren mahaikideak.



Ekitaldia alde batetik ikasturte berria irekiera emateko izan zen eta beste aldetik pasa den ikasturteko 19 ikasleei diplomak banatu zitzaizkien.

Hitzaldiaren hasieran proiektu berriztatzaile honen dituen helburuak azpimarratu ziren:

1. Garapen pertsonalaren sustapena, fisikoki, psikikoki eta sozialki egokia, osasuntsua eta arrakastatsua izatea.
2. Heziketa errealtate

soziala aztertzeko moduaren ikuspegitik (gizartea bera eta gertatzen ari diren aldaketak), pertsona hauek talde gisa paper bat bete eta gainontzeko adinekin lotura izan dezaten, belaunaldien arteko truka-keta erraztuz.

3. Talde honek gizartearen eragiteko ahalmena izatea, paper aktiboa, baliagarria eta onuragarria betez.

Geroz eta garrantzia gehiago ematen zaio eten-

gabeko hezkuntzari, Eusko Jaurlaritzak aditzera eman zuenez, horrelako proiektuak geroz eta indar handiagoa dute Europar batasunean, gizartea geroz eta prestakuntza maila altuagoa izateak etekin positiboak dakartza epe motzera eta baita ere epe luzera.

Mugabe elkarte ere aipatu zen, bere sorrera adineko pertsonen gure inguruan duten proiektuak buruzko ideia bat gerturatzeko digu. Elkarte hau osatzen dute Matia Fundazioak, Ordizia, Lasarte eta Donostiako Esperientzia eskolako ikasle ohien elkarteak eta baita ere ACE-Xek (Adineko pertsonentzako unibertsitateko ikas-

leak).

Ezin dira ahaztu Txaro Fernandezek, Gueskeren ordezkari giza (Goierri Urola Garaiko Esperientzia Eskolako ikasle ohien sozio kultur elkarte) bere hitzetan esan zuena "Esperientzia Eskola dugula helburu elkarte gaur guztiok hemen, komunikabideak, instituzio publikoak eta Esperientzia eskolako ikasle ohiak zein berriak hori gauza handia da".

Kurtso honetan interesatuta zaudeten guztioi zuzentzen gara esanez, izena emateko epea ez dagoelako itxita, ikasleari erraztasun guztiak ematen saiatzen gara, garraio aldetik arazoak ez izateko taldeak antolatzen dira, sesioak galtzen badira beste urteko sesioetara bideratzen dira, ekonomikoki ere 150 euroko kostua izanda ere %50a Kutzak aportatzen du kurtso amaieran.

Deitu iezaiguzu Goiekin gaude 943 161537 telefonoan eta informatu zaitetz inongo konpromezurik gabe.

Laida Plazaola

XVII. mendean Seguran egindako iltzeak

Argazkian ikusten direnak, Rafael Berasategi segurarrak, Segurako elizako teilatuko habeetatik ateratako iltzeak dira. Jaso, txukundu eta erakusgai jarri ditu Elorripe tabernan.

1670-1680 urte artean, Segurako burdinolaren batean (Arrabiolan seguruenik) egindako iltzeak dira. Neurri ezberdinak iltzeak dira: 6 zentimetrotatik hasi eta metro bat artekoak. Arandelak ere badira tartean. Mineral urtuaz eta inongo aleaziorik gabe forjaturik dagoen materialez eginak daude iltzeak. Karbono konposizioa berriz oso altua da, horrek egurrean erabiltzen diren iltzek behar izaten duten gogortasuna ematen dio. Iltze berdinek dago.

Altxorra

Elizako teilatutik kendutako habe batean, metro bate edukiko izango zuen iltze bat ikusi zuen Rafael Berasategik iazko udazkenean. "Bertako langileekin harremanetan jarri eta iltzeak kanpora eramaten ari zirela esan zidaten, apaingarri gisa saltzeko. Bidoikada bat eramanez zuten Hernanira, Tolosara eta Donostiara. Nik

batzuk berreskuratu ahal izan ditut. Berriz Segurara ekarri dituzte".

Arantzadi Zientzia Elkartekoekin berehala jarri zen harremanetan Berasategi. "Harrituta gelditu ziren. Haiek ere ez zekiten horrelako iltzerik zegoenik. 1670-80 urte bitartean egindako iltzeak dira. Arantzadikoei esan zidate-

nez, horrelako enborrak lotzeko egurrezko ziriak erabiltzen zituzten. Oholak josteko bakarrik erabiltzen omen ziren iltzeak. Garai hartan Seguran burdinola garrantzitsuak zeuden, dirua ere baze- goen, eta kapritxosoren batek egindako gauza dela esan daiteke. Segurako artxiboan egurra Etxarritik ekarri zutela agertzen da baina iltzeen berririk ez dago".

Horrelako altxorra Segura galtzeko zorian egon dela eta kritika konstruktiboa egin nahi izan du segurarrak: "Eliza inguruko

lanak jarraitzen ari ziren herritarrei, ausartu ez direlako iltze horiek hartzera eta herriko agintariei iltze horien berri eman ez dietelako, iltzeak, Seguran gelditu zitezkeen. Altxorra ez da bistan dagoena bakarrik zaintzea, altxorra izku-

tuan dagoena agerian jartzen denean berreskuratzeko ere bada".

Elorripen jarritako erakusketa kendutakoan, Segurako beste punturen batean jendaurrean jarriko ditu ikusgai Berasategik, XVII. mendeko iltzeak.



Alpe
SUKALDE ALTZARIAK

sukalderik goxoenak

Mariarats 10 Beasain
Tfnoa 943 88 86 84

ALDANONDO GARAJEA
MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak,
alineazioa,
aluminiozko lllantak

Filtroak, olioak,
engrasea

Frenu pastilak, tubo
eskapeak, bateriak

Harezko txorrotadak



Errota Poligonoa IDIAZABALgo sarreran ☎ 943 18 72 57

Modou Diop

Hitzaren Ordiziako banatzailea

10 laguneko taldea aritzen da asteartetik igandera Goierriko Hitza egunkaria banatzen. Bederatzi emakumezko eta gizonezko bakarra. Modou Diop senegaldar gaztea da bat hori.

h pegatina

Goizeko 9etan hasten da Modou gurdia hartu eta Ordizian etxex etxe Hitza banatzen. Lehenengo egunetan 6-7 ordu behar bazituen ere, dagoeneko 5 ordu baino gutxiagora murriztu du bere jarduna. "Orain denbora gutxiago behar dut, batetik kaleak eta atariak ezagutzen ditudalako, eta bestetik, buzoietan pegatinak jarrita lana asko errazten delako", dio Modouk. Hori bai, dei bat egin nahi izan du Modouk lerro hauen bidez, buzoitik 'h' hitza duen pegatinarik ez kentzeko,

banatzaileentzat Hitza non sartu behar dutenaren adierazgarria baita.

Gustura dago Modou, Hitzari esker lehenengo lana aurkitu baitu. "Gizarte Segurantzarekin eta guzti! Hori handia da niretzat!", adierazi digu pozez.

Hori bai Hitza banatzea goizeko lana bakarrik denez, arratsaldean beste lanen bat egitea gustatuko litzaioke.

Senegaldar goierritar euskalduna

16 urte zituela iritsi zen Modou Diop Goierrira. Gaur egun 24 urte ditu. Aurretik, aita etorria zen, gure artean ezaguna den Mor hain zuzen ere. Aitak paperak egokitzea lortu zituenean etorri zen Modou. Orain arte, azoketan aitari laguntzen aritu izan da.

Bere aitak bezala, eta osabatzat duen Khadim



Senegaldarra izan arren txukun asko egiten du euskaraz Hitzaren Ordiziako banatzaileak.

Fallek bezala, euskaraz ikasi du Modouk. AEK-n aritu da eta txukun moldatzen da senegaldar goierritar euskalduna. Kanpotik hainbeste jende datorren honetan, guztiak euskaraz ikastera animatu nahi ditu Modouk, "hasieran zaila da baina euskararik gabe ez daukagu ezer. Lana aur-

kitzeko euskaraz jakitea ere oso garrantzitsua da. Nik Hitza banatzeko lana euskaraz zerbait dakidala-ko lortu dut".

Dirua aurreztu eta ama-rengana eta senideengana joan nahiko luke Modouk bisitan. Hori bai, Goierrira itzultzekotan.

ZUZENKI

A HOLKULARITZA

Abokatuak

Enpresen asesoria
eta gestioa

Tel/Faxa: 943 162 393

e.posta: zuzenki@euskalnet.net

Eloegi, 16 LAZKAO

txekin

www.zuzenki.net

ainaraxteberria

HANKARA

podologia zentroa

Tel.: 943 887 946

Zelaeta-berri plaza,4 BEASAIN

Hizki saltsa: Goierri ezagutu

Nola dauka izena Goierriko euskara hutsezko egunkari berriak?

- a) Berria b) Argia
c) Hitza d) Gaur

Non ospatu da 'Arrastoak 2004'?

- a) Beasain b) Idiazabal
c) Mutiloa d) Ormaiztegi

Urriaren 8tik 12ra zer ospatu zen Ordiziako Majori Kiroldegian?

- a) Artisaualdia b) Igeriketa txapelketa
c) Artisautza d) Bertsolari txapelketa

Euskal Jaien zenbagarren urtea ari dira ospatzen Ordizian?

- a) Mila b) Ehun
c) Bost d) Berrogeita hamar

Josune..... eskalatzailea.

- a) Olano b) Mujika
c) Bereziartu d) Ruiz

Zein idazlek kaleratu du 'Atxiki sekretua' ipuin liburua?

- a) Zubizarreta b) Mendiguren
c) Ezkiaga d) Ormazabal

Zein dantza talde ari da 25. urteurrena ospatzen?

- a) Oin Arin b) Aurtzaka
c) Urdaneta d) Iztueta

Idiazabaldarrak zer dira?

- a) Otsoak b) Txingurriak
c) Azeriak d) Behiak

Zein ibai jaiotzen da Zegaman?

- a) Oria b) Amundarain
c) Estanda d) Agauntza

Ataun San Martin, Ataun San Gregorio, Ataun...

- a) Goia b) Aia
c) San Justo d) San Migel

Z A M Z B E R I I A O
U R K O K A M K G M T
B T D I R E A N E R A
I I K R O I I N T A M
Z S E T R P A E Z E O
A A K E A I T D I Z T
R U Z U K E R U A R Z
R A S E A O N A M V O
E L T A Z A U S R F M
T D A Z T I H I O G A
A I L E R B E N P U L
M A X S U L A Z K S O
I U T R A I Z E R E B



OTEÑE ERRETEGIA

Bazkari, afari eta edozein ospakizun ingurune paregabea

Larraitz bidea

GAINTZA

☎ 943 88 98 48



SUTAN

TXIMINIAK

EGUR BARBAKOAK

ESTALDURAK
(Harlanduak-simulazioa)

Mugitegi industrialdea, B bidea, 6

URRETXU

665 737 302

**SOLOZABAL
AUTO-ESKOLA**

Promozioa:
auto ordua 12 euro

Aita Urdaneta

ORDIZIA

☎ 943 88 72 76

Debaldeko iragarkiak

ETXEBIZITZAK

salgai

Zegama, 60 m²ko etxebizitza salgai. 619078389 - 619300910.

Ordiziako Altamira auzoan etxebizitza salgai. 3 logela, 2 bainugela, sukaldea, egongela, trastaleku handia, arropa zintzilikatzeko leku itxia eta gara-jea. 667296832.

Berastegin atikoa salgai. 3 logela, bainugela, sukaldea eta egongela (beheko suarekin). Egoera onean. 636161966.

Beasainen etxebizitza salgai. Herri erdian. 2 logela, 2 bainugela jantzita, sukaldea jantzita, eta bi balkoi. Trasteroa ere badu. Garaje itxia aukeran. 667326707.

Ordizian atikoa salgai. 50 m². Dena eraberritua. Sukalde amerikarra, hiriko gasa. 18.000.000 pezeta. 630207879.

Seguran etxebizitza salgai. Sukalde, egongela, 3 logela eta 2 bainugela. 652741042.

errentan hartu

Goierri edo inguruetan pisua errentan hartuko genuke. 645722874.

elkarbanatzeko

Ordiziako Garagartza plaza apartamentua eskaintzen da konpartitzeko. 647702860.

Pertsona arduratsua behar da lehenbailehen Beasainen pisua konpartitzeko. 630452598

GARAJEAK

errentan eman

Ordizia erdigunean garaje itxia alokatzen da. 665756560.

Idiazabalen garajea alokatzen da, Kale Nagusian, 15-17 zenbakian. 943187585.

Ordizian, Lukusin plazan, garaje itxia alokatzen da. 615768977.

Beasainen, Esteban Lasa kalean, garaje itxia alokatzen da. 615787097.

LOKALAK

errentan eman

Lokal itxia, alokatzen da Beasainen. 615789097.

errentan hartu

Musika talde batek lokala behar du entsaiatzeko, Beasainen edo inguruan. Insonorizatu- tuko da. 943027516 - 665734291. Ander.

NEGOZIOAK

errentan eman

Beasainen ileapaindegia alokatzen da. Erdigunean. 943883988.

salgai

Ileapaindegia salgai, jubila- zioagatik. Bezero ugarirekin. 686978667.

IBILGAILUAK

salgai

Opel Corsa 1200 salgai. 2000 ediziokoa. 639962850.

Opel Frontera DTI 2200, to- doterrenea salgai. 86.000 km. Beti garajea egona. Aire ego- kitua, hainbat extra. 5 urte. 18.000 euro. Negoziagarriak. 943038976 - 656745269.

Fiat 1.9 TD autokarabana salgai. CI Mizar CI-130 Capu- china modeloa. SS-AU. 40.000 km. Toldoa, TV antena, 5 lagun ibiltzeko. 6 leku. 609029559.

Citroen C15, diesela, salgai. Oso egoera onean. SS-AP. 943801107 - 656710809. Joxe.

Golf GTI, 3 seriea, salgai. NA- AG. Gorria. 163.000 km. 628858289.

Volvo 360 GLE injekziozkoa salgai. SS-AF. Oso egoera one- an. 659671097.

Opel Kadet 1.7 d. salgai. 160.000 km. Egoera onean. 610854904.

Opel Astra 1600 sal- gai. 108.000 Km. Beti garajea egona. 6 urtekoa. 943084259 eta 650634251.



mazda

☎ 943 889 296

Faxa: 943 887 952

N-1 errep. 419 Kma

BEASAIN

Bikar, S. A.



Ikaskide
irakaskuntza zerbitzuak

Joan Iturralde, 5
943 160 120
Beasain

2004-2005
IKASTURTEA

BERRIA!

ESKOLA LAGUNTZA

- ✓ Lehen Hezkuntza
- ✓ DBH, Batxilergoa
- ✓ Modulua, Zikloak
- ✓ Unibertsitate maila
- ✓ Talde txikiak

INFORMATIKA-GELA

- ✓ Ikastaroak
 - Ingelera
 - Word, acces, excel
 - mekanografia
- ✓ Internet

Goierriko akademia integrala hezkuntzako profesionalen esku

Goierritarra

etxean jasotzeko laguntzaile txartela

Txartel hau betetzen dutenei urtean 12 euro kobratuko zaizkie posta gastuak ordaintzeko

Izen-abizenak:

Helbidea:

Herria:

Tfnoa:

NAN:

Kontu zenbakia (20 digitu):

Bidali txartel hau helbide honetara: GoierriTarra, 124 Posta Kutxa, Ordizia

AMEBI



Sagardotegia

**Erretegi bezala
zabalik**

- * Eguneroko menuak
- * Karta zerbitzua
- * Ospakizunak
- * Plater konbinatuak

Zubierreka,9 ☎ 943 16 25 23 **LAZKAO**

BESTELAKOAK

erosi

Bizikleta estatikoa erosiko nuke. 943654641.

salgai

Sutarako pago egur lehorra salgai. Edozein neurritara moz-tua. Etxera eramango dizugu. 615755762.

Gurdi-denda salgai. 4 laguentzako, abantze eta guzti. 16 m² guztira. Bi logela eta erdian salarekin. Kofre bat ere bai. 943881978. arrietabeo@euskalnet.net.

Benelli 491RR scooterra salgai. 49 cm3. 4 urtekoa. Egoera onean. Abendura arte aseguratuta. 1.000 euro. 666956883.

Adminstrazio laguntzaile-rako formazio kontratua traspasatzen da. Adoz zentroak emanda. Kurtsoak 1.500 euro balio ditu baina 900 eurotan utziko nuke. 620215920.

Gas gas endukros 250 motorra salgai. 99. urtekoa. Oso egoera onean. Matrikuladuna. 676882842. Xabier.

Impresora, fotokopiadora eta faxaren lana egiten duen makina salgai. 687415301.

LTD gitarra elektrikoa salgai. Viper modelo. Urtebete dauka. Pastilla aldatuta, Seymour duncan marka. 80.000

GALDUTAKO OBJETUAK

San Adrian inguruan, telefono mugikorra galdu nuen, irailaren 20an. 943885139.

AURKITUTAKO OBJETUAK

Txamarra beigea eta urdina aurkitu da Seguran. 943801002.

ANIMALIAK

salgai

Bi ardi salgai, 50 eurotan. 943180388.

erosi

Astoa erosiko nuke, emea. Merkea. 943180388.

pezetan (negoziagarriak). 675008892. Bittor.

Sehaska salgai, osagai guztiekin. Egurrezkoa. Mahaiari eransten zaion aulkia eta kottxean haurra eramateko aulkia ere bai. 670422051.

Moncayo Alhambra-430 karabana salgai. 5 lagunentzat. Egoera onean. Komuna eta sukaldea erabili gabeak. Osagarri guztiekin. Beti gara Jean egona. 669239195.

LANA

eskaerak

Pertsona euskalduna behar da asteburuetan tabernan lan egiteko. 943085481.

Pertsona bat behar dugu Ordizian etxeko lanak egiteko (asteen bi egun, bi orduz) eta noiz behinka umeak zaintzeko, gaixo jartzen direnean. 943887679.

Neska bat behar da tabernan lan egiteko sukaldeko laguntzaile bezala, asteburuetan. Ez da beharrezkoa esperientzia izatea. 605772623.

Larunbatean zerbitzari lanak egiteko neska bat behar da. 630402575.

eskaintzak

Enpresaritzan lizentziaturiko neska prest dago bere ikaske-tekin zerikusia duen lanpostu batean lan egiteko. 610369746.

Ileapaintzaile titulatu eskaintzen da, laguntzaile bezala lan egiteko. 615702623.

27 urteko neska euskalduna, prest dago, urtariletik aurrera, goizetan, dendetan lan egiteko. 687374559.

21 urteko mutila, arratsaldetan lan egiteko prest dago. 665713779. Xabi.

25 urteko neska prest legoke arratsaldeetan haurrak zaintzeko. 661700376

Lazkaon pintura eta plastika tailerra helduentzat eta haurrentzat. 94388085954 - 630751000.

Ingelera klaseak ematen dira, Lazkaon eta Ataunen. 690088579.

Dantza ikastaroak ematen dira: fandango eta arin-arina. 3 hilabeteko ikastaroak, astean egun 1, haur eta helduentzat. 619437004.

Emakume euskalduna eskaintzen da etxeko lanak egin, adinekoak zaintzeko eta abar. 660759207.

Debaldeko iragarkiak:

943 88 96 12

goierritarra@topagunea.com



©-Faxa: 943 88 95 76 Urdaneta, 41 ORDIZIA



ERREFORMAK

- ✕ Tximini eta egurrezko ekonomikak
- ✕ Berogailuak
- ✕ Iturgintza
- ✕ Zeramika erakusketa
- ✕ Bainuko altzariak

KEMEN

KIROLAK

Zumalakarregi, 1

☎ 943 88 51 68

ORMAIZTEGI

ARRIETA

JATE TXEA

Ezkontzak, jaunartzeak, bataioak...
era guztietako ospakizunak

☎ 943 88 00 02
OLABERRIA



Koadrilen arteko futbol txapelketa Lazkaon 1980 inguruan

Txibustiok utzi digun argazkian Lazkaoko koadrilen arteko txapelketan parte hartu zuten Tantai taldekoak dira. Bakoitzaren izen abizenak jarri beharrean ezizenak jartzeko eskatu digu "Baina neri ez Tejero jarri eh! Neri Txibustio jarri", argi utzi digu. Askotan ez baita erraza ezizenekin asmatzea.

Zutik ezkerretik eskuinera: Pontzio, Joxebato, Kiosko, Labores, Torrano eta Iturrino

Pikotxean: Samuelin, Markoxmari, Txibustio, Tomi eta Ganbo.



BAREAK

D E N D A R I A K

Beasaingo
Merkatarien Elkartea
Harremanetarako telefonoa:
943 884 056

GERTU

aholkularitza



ENPRESA BERRIAK SORTZEKO
DOHAINEKO AHOLKULARITZA
ETA SUBENTZIOAK

txekin

BEASAIN
gertu.asesoria@terra.es
www.gertuasesores.com

Kale Nagusia, 2
Tel.: 943 16 21 92
Faxa. 943 88 36 33



ARANDIA

Garajea

LADA
Ssang Yong

AUTOEN KONPONKETA

N-1, z/g
Iurre Auzoa

OLABERRIA

943 88 09 47

UNTXUNDEI

garajea



OSINALDE

karrozategia



943 88 28 21 943 16 07 06

ORMAIZTEGI

Kanaloiak
Bajanteak
Fatxadak
...

Lan bertikalak S.L.

Pintura
Teilatuak
Tximiniak
...



Tfnoa.: 605 712 018

Ezkurdiategi Etxea

ATAUN

BARANDIARAN
zeramikak

ERREF. MAK DISEINUAK PROIEKTUAK BAINUAK HIDROMASAJA

SEMPERE KALEA. 7, 1. LOKALA BEASAIN
TLFNO. 943 887972 - FAX 943 888657
e-mail : barandi@barandiaranzeramikak.com



SILVIA MIRAS CASASAYAS
ODONTOLOGO A

SILVIA MIRAS CASASAYAS
ODONTOLOGO A



Urtebete egin dugu gure zentru berrian, behar guztiak asetzeko erabat horniturik dagoena; elbarrituentzako guztiz egokitutako instalakuntzetik hasi eta zure ongizatea lortzeko behar diren guztiak zaindu ditugularik. **Teknologi aurreratuenak zure esku** jarri, gure lan talde espezializatuak norbanako tratamendu egokienaz landuko ditu zure beharrak, bai **inplantologi**, **estetika** edota **zirugi** mailan.

Erabateko hortz klinika integratua.

SMC

ERABATEKO

GURE INSTALAKUNTZAK ELBARRITUENTZAT

HORTZ

ERABAT EGOKITUAK DAUDE, KLINIKAK SAN

KLINIKA

INAZIO KALE BERTARA EMATEN DUELARIK

INTEGRATUA



Teknologia, profesionaltasuna eta arreta, zerbitzu bakar batean bateratuz, giro goxo batean, zerbitzurik hurbilena eskeiniz, dentistarekiko zure ikuspegia aldatuko dugu.



TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)